

LITERATURA. Mikel Valverde eta Jokin Mitxelenaren marrazkiek aberasten dituzte liburuak

Haurrek konplexuak gainditzeko lau ipuin kaleratu ditu 'Eta zer?' sailak

Ana Urkiza, Pako Sagarzazu eta Arantxa Iturberen lanak dira Elkarlanean-eko bildumakoak

Amagoia Mujika | DONOSTIA

Arantxa Iturbek gauza guztiei beldurra dien neskatoa eta eserita pixa egiten duen mutikoa aurkezten ditu bere bi liburuetan; Pako Sagarzazuk, Downen sindromea duen neska, anaia-aren begietatik ikusita; eta Ana Urkizak, oso umetatik betaurrekoak erabiltzen dituen neska. Ezberdinak dira horregatik. Jendeak barre egiten die horregatik. Eta zer?

Beldurtia naiz eta *Nik eserita egiten dut* (Arantxa Iturbe), *Honelakoxea da nire arreba* (Pako Sagarzazu) eta *Betaurrekoak ditut* (Ana Urkiza) liburuak aurkeztu ditu Elkarlanean argitaletxeak *Eta zer?* sailean, eta Mikel Valverde eta Jokin Mitxelenaren marrazkiek aberastu dituzte istorio guztiak.

Haurren artean potolo, handi, txiki, betaurrekodun, beldurti eta lotsatiek nahiko sufrimendu jasan behar izaten dute ezberdinak direla pentsatzeagatik. «Hori dela eta, sail hau ateratzea erabaki genuen iaz, lan pedagogikoa egingo duten ipuinak», dio Joxan Ormazabalek, Elkarlanean-eko kideak. Zortzi liburu ditu jada bildumak.



PABLO S. QUIZA
Pako Sagarzazu, Ana Urkiza eta Joxan Ormazabal, atzo, *Eta zer?* saileko liburuak aurkezten.

Pako Sagarzazuk Atzegiko Kañi Peñalbari aholkua eskatu zion Downen sindromearen gainean idazteko. «Gai labaina iruditu zitzaidan, eta laguntza eskatu behar izan nuen», esan zuen. Egunerokoaz hitz egiten du, «gauza arrunta izango balitz bezala». Joxan Ormazabalek egin du Sagarzazuren liburua-aren itzulpena.

Ana Urkizak, berriz, umetako bizipenak izan ditu gogoan haurrentzat egin duen lehen liburuan. «Sekula ez dut arazorik izan betaurrekoak erabiltzeagatik. Besteek hartu izan dute arazo gisara», azaldu zuen. *Miope*, *begi-oker*, *begiustel*, *begihandi*, *laubegi* eta *ikaszaku* ezeizzenak maiz izaten dira betaurrekoak darabiltzatenen-

tzat. «Bilduma hau egokia iruditzen zait konplexuak uxatzeko eta ezberdintasunak ulertzeko».

Arantxa Iturbek ere haurrentzako lehen saioa egin du liburu hauetan. «*Nik eserita egiten dut* txispa handikoa da, maliziarekin egina, errealista», azaldu du Ormazabalek. *Beldurtia naiz*, berriz, «fantasia handikoa da».

KRITIKA MUSIKA

Joseba Martín

Arima ibiltariaren bakea

Natalia King

Lekua: Bilborock aretoa. Eguna: Azaroaren 21a.

Natalia King artista ezberdina dugu. Brooklynen jaio zen dominikar sustraiaz eta Europa aldera etorri zen orain dela lau urte, Paris aldera. Berehala deskubritu zuten eta *Milagro* albuma grabatu zuen. Bilboko bigarren bisita honetan —iaz Euskaldunan egon zen— kantu hauek garatu zituen ostera, bi musikari berriekin: Pierre Crosnier gitarra elektrikoan eta David Granier baterian. Eta ezberdina, zergatik? Bere Parisko teknikaria ekarri zuelako, hiru orduko soinu frogia egin zutelako, bere kantuak hamar minutukoak direlako, ahots apartekoa duelako...

Natalia King kantariak gitarra elektroakustikoa ekarri zuen, eta lan galanta egin sokekin, batez ere efektu bereziak sortzen zituenean, biolinaren arkuaren laguntzaz edo, *Drag* kantuan bezala, gitarraren kaxa etorkizuneko perkusioa izango balitz bezala jo zuenean. Lehenbiziko kantuan —*Eye to eye*— ekitaldiaren oinarria ezarri zuen Nataliak: bateriaren erritmo hipnotikoa, obsesiboa, gitarraren riff bitxiak, kantu guztiak gorantz geroago gelditzeko hasieratik hasteko asmoz. Eta oinarri honen gainean emakume argal, irritsu eta serio honen ahotsa, Rickie Lee Jones, Tom Waits edo P.J. Harvey gogoan geneuzkala.

Hamazazpi minutuko bis bakarria

Disko osoa egin zuen amerikarrak, *Beautiful* kantua izan ezik. Emozioz beteriko *Milagro*, *Angel* —Afganistango hildakoei dedikaturik—, *You are my song* indartsua, *The Edge* luzea eta hunkigarria, *Bliss* eta energiaz jositako *On the inside* entzun genituen gustura. Eta bis bakarrean albumean ez dagoen *Desert* kantuz gozatu genuen —hamazazpi minutukoa—, Kaliforniako basamortuak gogoan zituela. Horrela amaitu zen magiazko pasarte ezberdina dugun kantari honekin. Horrelako kontzertuak azalgaitzak dira: hortxe egon behar da xehetasunez jabetzeko, arima ibiltari hau bakean dagoela ulertzeko.



Resurreccion
Maria Azkue ren
heriotzearen 50. urteurrena

Lekeition, 2001eko
zemendiaren 9tik 25era

Azaroaren 24an, zapatuan:

Gaueko 10:30etan: OSKORRI taldearen ekitaldia Santi Brouard kiroldengan, eta bertan aurkeztuko da "VIZCAYA-tik... ..BIZKAIA-ra" disko barria.

erakusketa

"Azkue, erraldoi bakarti eta berezia"
Azaroaren 9tik 25era, Barandiaran Aretoan.

Ordutegia: Barikuetan, arratsaldeko 6etatik 9etara.
Zapatuetan, goizeko 12etatik ordu 2etara
eta arratsaldeko 6etatik 9etara.
Domeketan, goizeko 12etatik ordu 2etara
eta arratsaldeko 6etatik 9etara.



LEKEITIOKO UDALA

ANDOAIN

OPERA OBERTAK

AURKEZTEN DU

"EL ELIXIR DE AMOR"



AZAROAK 24
ORDUA:
20:00etan
LA SALLE
ANTZOKIAN

Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. Urigain Kultura Etxea.
Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia